

Andatza-Ezkeltzu Bizirik!

Enpresa pribatu batek, Green Capital enpresak, Zizurkilen parke eoliko bat jartzeko eskaera luzatu dio Eusko Jaurlaritzari. Ezkeltzu mendiaren inguruan lau dorre jartzea aurreikusten du enpresak, ia 200 metroko altuera hartuko duten dorre erraldoiak.


Dorre horiek eraikitzeko, gutxienez 10 metroko zabalera izango duen errepidea eraiki beharko dute, herrigunetik Ezkeltzuraino. Lau dorreak elkartuko dituen pistak ere aurreikusten ditu ekimenak eta azkenik, lau dorreek sortutako energia bideratuko duen sare elektrikoa. Porlana eta txikizioa, energia berdearen izenean.

Andatza Ezkeltzu bizirik! plataformak, Ezkeltzuko inguruak Zizurkilentzat eta eskualdearentzat duen balioa azpimarratu nahi du. Ehunka urtetan

zehar gure naturaren, abeltzaintzaren, aisialdiaren eta kulturaren zati baten gordailu izan da Ezkeltzu. Guri dagokigu txikiziotik zaintzea.

Energia berriztagarrien aldeko apustuan sinesten dugu, baina ez dugu enpresa pribatu baten ekimenean oinarritutako proiektu suntsitzailerik nahi. Benetako beharrei erantzungo dien plangintza publiko eta orokor batean oinarritutako ekimenak behar ditugu, ingurugiroari ahalik eta kalterik txikiena eragitea bermatuko dutenak. Badaude bide berriak

Datozen asteetan ekimen ezberdinak antolatuko ditugu Green Capitalek aurkeztutako ekimenaren inguruko informazioa zabaltzeko. www.andatzaezkeltzubizirik.eus webgunean aurkituko duzue unean uneko informazio eguneratua.



Andatza-Ezkeltzu Bizirik!

FLORENTINO PEREZEN ENPRESAK
JARRI NAHI DITUEN HAIZE-ERROTEN
TAMAINUA

Eskala 1:500



ATOTXA DORREA



ZIZURKILGO ELIZA

